

X. URTEA
30. zenb.

1992 IRAILA - ABENDUA
560 pta. - 28 libera



Diktoglosiaren teknika
Ikasgelatik teorizatzen
Hizkuntz ikastaroen diseinua
eta antolamendua
Ikaslearen kontzientizazioa
Euskalduntze-alfabetatzea. 1981-1991.eko
datuei gainbegirada

ZUTABE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

Xedeak

ZUTABE euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria bi eremu horietan dihardutenei edo horiekin lanbidezko loturarik dutenei zuzendua dago, helduen euskara-irakasleei batipat. Lauhilaetekari honek ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzarekin zerikusirik duten zientzi arloak ditu berezko esparru (Psikolinguistika, Linguistika aplikatua, Andragogia/Pedagogia, Soziolinguistika) eta hizkuntzen irakaskuntzan/alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketak ezagutaraztea helburu nagusi. **ZUTABE**k teoria aplikatua eta praktikaren arteko oreka lortu nahi du, arestian aipaturiko zientziak eta klaseko mundua uztartzeko zubi izan, aplikatua bait da argitalpenaren orientabidea. Ez da lan makala informazio aberatsa eta nork bere burua hobeto prestatzeko lantresnak eskaintzea eta ideiak elkartrukatzeko eztabaidagune ireki jori eta bizia izatea. Ba, horixe du **ZUTABE**k erronka. Amaitzeko, esan **ZUTABE**ren zuzendaritza ez dela artikuluetan agertzen diren iritzi eta ideien erantzule.

ZUTABEko lankidetzak

ZUTABEk gogo onez hartzen ditu helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arazoari behar bezala aurre egiteko lagun dezaketen ekarpenak. Bertara bidalitako lanek, aldizkariaren orientabidea gogoan hartuz, zerikusi handia izan behar dute euskalduntze/alfabetatze gintzak egunero eta gertutik bizi dituzten gorabeherekin. Helduen euskalduntze-eta alfabetatze-eremuei buruzko ekarpenak nahiago izan arren, aldizkariak ez ditu inondik ere helduez beste gizataldeekin aritzen direnenak baztertzen, baldin eta beste egoera ezberdinetan aritzen direnentzat ere baliagarri eta interesgarriak gertatzen badira.

Lanak taxutzerakoan "Artikulugileentzako irizpideak" izeneko idazkia hartu behar da kontuan. Berau urteroko lehendabiziko alean emango da argitara.

ZUTABEk hemendik dei egiten die euskara-arloan lan egiten duten irakasle, hizkuntz eta hezkuntz teknikari, euskara-arduradun eta unibertsitate-alorreko ikertzaileei, aldizkarian esku har dezaten.

Posta

Editorial-gaien inguruko posta eta harpidetzari buruzkoa honako helbide hauetara igorriko da:

•Editorial-gaiak:

ZUTABE
Reina Regente 2-2.a
20003 Donostia
Tlf. (943)291811

•Harpidetza:

HABE
ZUTABE (Harpidetza)
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 Donostia
Tel.: (943) 429120; Fax: (943) 430162

Zuzendaritza

HABEren Glotodidaktika zerbitzua

Koordinazioa

Euskalduntze saila

Zuzendaritza batzordea

Iñaki Aranberri

Lagunarri Pedagogikoen saileko burua

Pello Esnal

Euskalduntze saileko burua

Boni Urkizu

Euskara ataleko burua

Imanol Irizar

HABE Liburutegiko arduraduna

Koordinatzailea

Joanba Bergara

Euskalduntze saila

1992rako prezioak

Ale bakoitza: 560 pta.- 28 libera

Harpidetza: 1.300 pta.

Diseinua

Azalak eta atalburuetako ikonoak:

Figueras Design
(Zedro plaza 2, 1. C
20016 - Donostia)

Inprimategia

Estudios Gráficos. Zure
P. Larramendi, 3-2
48012 Bilbo

Legezko Gordailua

SS-550/89

© Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra,
HABE.

I.S.S.N. 0212-5714



Ale honetan

Aurkezpena 1

Gela irekia

Bingoa 3

*M.K. Agirregabiria/B.
Barandiaran/M.G. Larrinaga/*

*Stephen Arnold/McNulty/Alison
Sykes McNulty*

Narrazio motzak irakaskuntza komunikatiboan: Ikasaio-eskema 8

Carmen Pérez/Ed Turney

Diktoglosiaren teknika eta hizkuntzen irakaskuntza 15

Beste iturrietatik

Esther Ramani

Ikasgelatik teorizatzen 21

Mindegi iraunkorra

Joanba Bergara

Hizkuntz ariketen hausnarrean 33

Irakasleen prestakuntza

Aitor Etxebarria

Erreziklaia barnetegi esperientzia bat 43

Bryn Moody

Hizkuntz ikastaroen diseinua eta antolamendua 45

Euskararen kutxa

Luis Maria Mujika

Apriorismoa Hervás-en Euskal Deituren Etimologietan 52

Ikasten iaio

Saulo Matute Montessori

Ikaslearen kontzientizazioa 66

Bestelako lankidetzak

HABE Euskalduntze-alfabetatzea. 1981-1991.eko datuei gainbegirada 74

Kanpainak

Aitor Etxebarria Euskal Herrian zehar euskara behar 85

Abegi Elkartea EN ESTE EUSKALTEGI APRENDER EUSKARA TE COSTARA CADA VEZ gutxiago! eta IKASI, EGIN ETA EGINARAZI, euskara denonda 87

*Donostiako Udala - Euskararen
Udal Patronatua* Euskara, gazteena 91

Gipuzkoako Udal Euskaltegiak Oporretan ez dugu ixten - No cerramos por vacaciones 96

Gipuzkoako Udal Euskaltegiak Maitatuz mintzatu - Amalo, háblalo 98

Liburuak eta aldizkariak

- Liburuak

Maria Jesus Espi Bilingualism (S. Romaine) 100

Maria Jesus Espi The written languages of the world: a survey of the degree and modes of use - 3 western Europe. (Albert Verdoot. H. Kloss/G.D. McConnell - edk.) 100

Aurkibideak

Aurkibideak: aldizkariko 28, 29 eta 30. zenbakiak 101

ZUTABE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta PK:

Probintzia:

ZUTABE aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean hiru ale: 1.300 pezeta.)
Honela ordainduko dut: Kontu korrante bidez.


Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:



Helbide honetara bidali behar da:
ZUTABE aldizkaria
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 DONOSTIA



Aurkezpena

Hamar urte beteko ditu ZUTABEk ale hau kaleratzean. Zorionak, irakurle, eta urte askotarako! Zuri eta kolaboratzaile leial askori esker lortu baitu aldizkariak, urteak joan urteak etorri eta hutsik egin gabe, hogeitamar urratsetako bide luzea egitea. Ez da nolanahiko lana izan, ez alajaina. Gera bedi oraingoz bere horretan “ospakizun” xume gisa gertakari horren aipua. Eskuetan duzun alean ohizko bidean barrena abiatu gara, beti bezala. Datorren urtean, ale “monografiko” berri bat argitaratuz “ospatuko” dugu aldizkariaren 10. urteurrena. Beraz, aurkez dezagun labur-labur 30. ale honen edukia.

- *Gela irekia.* Zenbait aditz-flexio erabiltzen irakasteko edota automatismoa lortzen laguntzeko asmatu dute egileek, 7. eta 8. urratsetako ikasleei begira, saileko lehenengo artikulua dakargun “Bingo” jokoa.

Aurreko alean Stephen eta Alison McNulty-k narrazio motzen erabilera komunikatiboari buruz zirriborratutako ideia batzuk argitzea da bigarren artikulua xedea, horretarako narrazio motz batez baliatuz. Artikuluaren egitura ikasaio-eskemaarena da eta irakasleari argibide zehatzak ematen zaizkio une bakoitzean eginbeharrekoei buruz.

Hirugarren artikulua, berriz, helduen irakaskuntzan oso egoki etor daitekeen diktoglosiaren teknika azaltzera dago emana. Zergatik da zaila bigarren hizkuntzan testu natural eta kohesiboak idazten irakastea? Artikuluaren egileek erabili ohi den hainbat ihardun-moduren akatsei egotzen diete errua. Eta beraiek diotenez, diktoglosiaren teknika oso aproposa da akats horiek gaingintzeko.

- *Beste iturrietatik.* Irakasleen trebakuntzan teoria eta praktika integratzeko metodologia bat planteatzen du sail honetako artikulua. Irakasleak beren praktika propioa teorizatu eta kontzeptualizatzen bultzatu behar ditugula dio autoreak. Ikasgelako datuak baliabide apartak dira teorizatzeko-prozesua hasi eta jarraitzeko. Irakasleek gelako datuei emandako erantzun intuitibo eta subjektiboak galdera teorikoak sortarazteko erabil baitaitezke. Galdera hauek iradokiko dituzte argitasun eta ulerkuntza sakonagoa lortzeko irakurri edo ikertu beharreko arloak; dirudienez, teoriari buruzko planteamendu hau, irakasleen intuizioetan sustraitua eta espezifikotik orokorrera igarotzen bultzatzen dituena, esanguratsuagoa da trebatzaileen input teorikoetan oinarritutakoa baino.
- *Mindegi iraunkorra.* Sail honetako artikulua hizkuntz ariketak aztertu eta sortzeko bi lanabes aurkezten dizkigu, hizkuntz ariketen izaera hausnartu eta birraurkitzeko egokiera eman nahian, euskararen irakaskuntzan ere, beste arlo askotan bezala, ohitura itsuen gurgipilean trabatuta gertatzeko arriskua baitugu.
- *Irakasleen prestakuntza.* Eguneroko lanen gurgipilean sartuta egoteak ia ezinezko egiten du zenbaitetan maiz sortzen zaizkigun kezka eta galde-

rez lasai, luze eta zabal hitz egitea. Sail honetako lehenengo artikulua, hain zuzen, arazo horri aurre egiteko modu bat azaltzen digu. Bigarrenak, berriz, erreferentzi puntu nagusia ikasleen behar eta interesetan jarritz, ikaskuntzarako materiala taldean prestatzeko eginbide zingile bat proposatzen digu.

- *Euskara aztergai.* Lorenzo Hervás-en euskal deiturei buruzko lanak garrantzi historiko berezia du. Sail honetako artikulua euskararen apolo-gista horren aurreiritzi ideologikoak aztertuko ditu.
- *Ikasten iaio.* Irakasleak aldi bateko elementua izan beharko luke ikaskun-tzan eta beti eduki beharko luke gogoan bere azken helburua ikaslearen emantzipazioa dela. Baina, horretarako, ikasleak, berekasa ikasten ari-tzeko gauza izatera heltzeko, ikasten jakin beharko du, berekasa ikasteko bidea emango dioten mekanismo batzuk erabiltzen ikasi; ikasestrategia aproposak garatu alegia. Eta, zentzuzkoa denez, ikasleak bere gogoko ikasmoldeei egokien datozkien estrategiak ezagutu baino lehenago, bere egungo ikasmoldeak nolakoak diren jakin behar. Artikulu honek ikasleari bere burua ezagutzeko balioko dioten tresna zenbait eskaintzea du xede.
- *Bestelako lankidetzak.* 1981-1991.eko hamarkadan euskalduntze-alfabe-tatzean gertatutako gorabeherei gainbegirada bat ematen die sail hone-tako artikulua, hainbat daturen bilduma eskainiz. Artikuluak hamar-kada horretan euskaltegien inguruan gertatu diren aldaketarik deigarrie-nak erakusten ditu, horien azpian egon daitezkeen arrazoiak eta ikus-puntu ezberdinak kontutan hartu gabe.
- *Kanpainak.* Atal honetan, euskararen aldeko zenbait kanpainaren berri ematen zaigu.

* * *

Azkenik, *Liburuak eta aldizkariak* sailaz gain, aldizkariko 28, 29 eta 30. zenba-kien aurkibideak eskaintzen zaizkigu, egileka eta gaika eskaini ere.